



OIARTZUNGO  
UDALA

## AUZO BILERAK 2023

**AUZO:** ELIZALDE

Data-Fecha	Hasiera ordua-Hora inicio	Bukaera ordua-Hora final
2024/10/4	19:00	21:00

### BILDUTAKOAK:

<b>Udal ordezkariak:</b> Representantes del ayuntamiento	Joana Mendiburu, Jexux Olaziregi, Agustin Lekuona, Ibintza Irigorri eta Nora Velez del Burgo.			
<b>Herritarrak-</b> Vecinos/a	Euskaraz: 19		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak-Mujeres: 8		Gizonezkoak-Hombres: 11	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 5	51-65 urte:5	>66 urte: 8

### AKTA-Acta

<b>Gaia-Tema</b>	<b>Ekarpena eta iruzkinak-Aportaciones y sugerencias</b>
<b>Aurkezpena-</b> Presetación	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da. <i>Se ha expuesto el orden del día que se va a tratar a lo largo de la Asamblea.</i>
<b>Legealdirako proiektuak- Proyectos para la legislatura</b>	Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman dugu. Se han expuesto las líneas de trabajo principales o estratégicas <b>ABIAPUNTUA- Punto de partida</b> 1) Aurreko legealdietatik jaso duguna oso baikorra izan da, eta horrek lagundu egiten du: herriak udalean duen konfiantza, zorrik gabeko udala izatea, talde polita sortu dugu, teknikariek zinegotzietatik izan duten harrera oso ona izan da. Proiektuen aldetik ez gara zerotik hasi, aurreko taldeak egindako lanaren jarraipena egingo dugu. <i>Lo que hemos recibido de anteriores legislaturas ha sido muy positivo, y eso ayuda: la confianza del pueblo en el ayuntamiento, el ayuntamiento sin deudas, hemos creado un grupo muy bonito, la acogida de los técnicos con los concejales</i>



OIARTZUNGO  
UDALA

*ha sido muy buena. Por proyectos no hemos empezado de cero, seguiremos el trabajo realizado por el equipo anterior.*

- 2) Herritarrekin lan egiteko formula berriak bilatu behar ditugu, abiapuntua auzolana izango litzateke, UDALGINTZA HERRIGILEA, arriskuak aukera bihurtzeko udal politika. Herritarrak dira protagonista, udalak baliabideak jartzen ditu, baina ondoren sektore ekonomiko bat egon behar da bultzada emango diona.

*Tenemos que buscar nuevas fórmulas para trabajar con la ciudadanía, el punto de partida sería el trabajo vecinal, UDALGINTZA HERRIGILEA, la política municipal de convertir los riesgos en oportunidades. La ciudadanía es la protagonista, el ayuntamiento pone los recursos, pero luego hay que tener un sector económico que le dé impulso.*

- 3) Hauteskundeak irabazi ditugu, eta programan hitz emandakoa bete egin behar dugu.

*Hemos ganado las elecciones y lo prometido en el programa tenemos que cumplirlo.*

- 4) Krisi egoera orokor batean gaude, baina horren aurrean Oiartzundik bertatik egoerari buelta ematen hasi beharko genuke

*Estamos en una situación de crisis general, pero ante ello deberíamos empezar a dar la vuelta desde Oiartzun a la situación*

#### LEGEALDI PLANA- PLAN DE LEGISLATURA

3 lan-lerrotan banatuta dago: herritarrak (ongizatea, kultura, euskara, zaintza...), lurraldea (lurraren zein herriaren antolaketa) eta antolaketa (udaletxearen funtzionamendua eta zein giza-baliabide dituen)

*Se divide en 3 líneas de trabajo: ciudadanía (bienestar, cultura, euskera, cuidados...), territorio (organización del suelo y del pueblo) y organización (funcionamiento del ayuntamiento y sus recursos humanos)*



OIARTZUNGO  
UDALA

## LAN ILDO ESTRATEGIKOAK- LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE TRABAJO

- 1) ELIKADURA BURUJABETZA: gaur egun, udalak laguntzen dituen hainbat egitasmo daude martxan. Udalak hasierako bultzada eman die elkarte hauei, eta ondoren beren bidea egin dute. Herriko lurrak erosten jarraituko dugu 1.sektorea bultzatzeko, herriko sukaldeak hornitu nahi ditugu herrian bertan ekoiztako jakiekin (herriko ikastetxeak, zahar etxea...). Herrian badaude ekimen ugari beren kabuz proiektuak bultzatzen ari direnak, baina ez dute foro komunik elkarlanean aritzeko.

*SOBERANÍA ALIMENTARIA: en la actualidad se están llevando a cabo diferentes proyectos de ayuda municipal. El Ayuntamiento ha dado un impulso inicial a estas asociaciones y han seguido su camino. Con el fin de impulsar el primer sector trabajaremos en la compra de terrenos, se pretende dotar a las cocinas locales de alimentos producidos en el municipio (colegios locales, residencia de ancianos...). En el pueblo hay muchas iniciativas que están impulsando proyectos por sí mismas, pero no tienen un foro común de colaboración.*

- 2) ENERGIA BURUJABETZA: sortu berri da Argitturri kooperatiba (hiruki horren parte den zutabe sozioekonomikoa). Udal mailan zein herri mailan neurriak hartu behar dira klima aldaketa dela-eta.

*SOBERANIA ENERGÉTICA: se acaba de crear la cooperativa Argitturri (pilar socioeconómico que forma parte de este triángulo). Hay que tomar medidas tanto a nivel municipal como a nivel local sobre el cambio climático.*

- 3) MUGIKORTASUN JASANGARRIA: herrian ohiturak aldatzen hasi behar dugu. Bizikletak lehenesteko plana egiteko asmoa dago (aparkalekuak...). Beste asmo bat da Arraguan intermodala eskatzea, oiartzuarrok aukera izan dezagun Euskal Herriko hainbat lekutara joateko: Gasteiz, Bilbo, Iruñea...

*MOVILIDAD SOSTENIBLE: debemos empezar a cambiar los hábitos en el pueblo. Se prevé realizar un plan de priorización de bicicletas (aparcamientos...). Otra*



OIARTZUNGO  
UDALA

*de las intenciones es pedir una parada intermodal en Arragua, para que los ciudadanos de Oiartzun tengamos la oportunidad de ir a diferentes lugares de Euskal Herria: Vitoria, Bilbao, Pamplona...*

- 4) OSASUNA ETA ZAINZTA: Zaintzadi programaren inguruan hitz egin dugu, bakardade ez hautatuan dauden herritarrak laguntzeko egitasmoa da. 22 herritarrek eman dute dagoeneko izena ekimen honetan. Zaintzadiren ideia da udalak laguntzea, baina herritarren sare baten laguntzarekin batera. Zaintza askotan osasun arazoak konpontzearekin lotuta egoten da, baina udalaren ardura da bizitza aktiboa sustatzea, bakardadeari laguntzeko modua ere baita horrelako ekimenak antolatzea.

*SALUD Y CUIDADOS: Hemos hablado sobre el programa Zaintzadi, un programa de apoyo a la ciudadanía en soledad no elegida. 22 ciudadanos ya se han apuntado a esta iniciativa. La idea de Zaintzadi es ayudar que el ayuntamiento ayude pero con la colaboración de una red ciudadana. En muchos casos el cuidado está relacionado con la resolución de problemas de salud, pero es responsabilidad del Ayuntamiento promover la vida activa, la forma de contribuir a la soledad y la organización de este tipo de iniciativas.*

- 5) KULTURA EUSKARAZ: bizi ditugun garaiek euskalgintza hauspotzeko beharra erakusten dute (etorkinak, euskararen aurkako erasoak...). Landetxe dagoeneko eraiki dugu, eta orain kultura plana egiteko momentua da. Gazte sortzaile ugari dugu herrian. Irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak aztertuko ditugu. Ondarea balioan jarriko dugu, eta udalaren lokalak eskura jarriko ditugu herriko kultur-sorkuntza bultzatzeko.

*CULTURA EUSKARAZ: los tiempos que vivimos demuestran la necesidad de impulsar nuestro idioma, el euskera. Hemos construido el edificio Landetxe y ahora es el momento de hacer el plan cultural. Tenemos muchos jóvenes que crean en el pueblo. Estudiaremos nuevas posibilidades para fomentar la lectura. Vamos a seguir valorando el patrimonio y trabajaremos para poner a*



OIARTZUNGO  
UDALA

	<p><i>disposición de los ciudadanos-ciudadanas locales municipales para impulsar la creación cultural del municipio.</i></p> <p>LEGEGINTZALDIAN MARTXAN DIREN ETXEBIZITZA SUSTAPENAK. PROMOCIONES DE VIVIENDA EN FUNCIONAMIENTO DURANTE LA LEGISLATURA: Altzibar zein Iturriozko promozioen berri eman da. Elizaldeko Urkabe Baitako eremuaz hitz egin da. Babes ofizialekoetan interesa izanez gero, Etxebiden eman behar da izena, eta Altzibarreko tasatuetarako urriko plenoan irekiko da izena emateko epea.</p> <p><i>Se informa de las promociones tanto de Altzibar como de Iturrioz. Se habla de la zona de Urkabe Baita de Elizalde. En caso de estar interesado/a en las VPO, la inscripción se realizará en Etxebide y el plazo de inscripción se abrirá en el pleno de octubre para las tasadas de Altzibar</i></p> <p>Udal etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eskaini da. <i>Se ha ofrecido la información sobre la oficina municipal de vivienda.</i></p> <p>UDAL ORDENANTZEN IGOERA- INCREMENTO DE LAS ORDENANZAS MUNICIPALES: %1,5 igoko dira tasak. Udalak sekulako ahalegina egin du azken urteetan ez igotzeko. Hala eta guztiz ere, KPIa baino gutxiago igo dugu gure herrian, azken batean, oreka bilatu behar dugu kalitatezko zerbitzuak izateko.</p> <p><i>Se incrementarán las tasas en un 1,5%. El Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo en los últimos años para no subirla y esa subida ha sido menor que el IPC, en definitiva, tenemos que buscar el equilibrio para tener servicios de calidad.</i></p>
<b>2024ko aurrekontu aurreikuspena- Previsión presupuestaria 2024</b>	<p><b>AURREKONTUA- PRESUPUESTO</b></p> <p>Lan ildo eta erronka hauentzat 20.200.000 euro ditugu. Arloz arlo ondorengoa izango da banaketa: Herritarren arloak %49, lurraldeak %36 eta antolaketak %15.</p>



OIARTZUNGO  
UDALA

	<p><i>Para estas líneas y retos contamos con 20.200.000 euros. La distribución por áreas será la siguiente: 49% para gastos de población, 36% para gastos de territorio y 15% para gastos de organización.</i></p> <p>Honakoak izango dira <b>inbertsio nagusiak</b>: mugikortasuna (bidegorri sarea, aparkaleku seguruak), energia (efizientzia energetikoan pausuak eman, energia berriztagarrien instalazioak), liburutegia birdiseinatu, herritarrentzako arreta gune bakarra jarri udalean, futbol zelai artifizial berria, udal eraikinen mantenua, hirigintza (Urkabe baitako etxeak eta Altzibarko promozioa), kulturgintza (kultura plana landu eta Landetxe erreferente bihurtu), ongizatea (bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa).</p> <p><i>Las principales inversiones serán en la movilidad (red de bidegorris, aparcamientos seguros), la energía (dar pasos en eficiencia energética, instalaciones de energías renovables), el diseño de la biblioteca, establecer un único punto de atención al ciudadano en el ayuntamiento, el nuevo campo de fútbol artificial, el mantenimiento de los edificios municipales, urbanismo (viviendas de Urkabe y promoción de Altzibar), la actividad cultural (elaborar el plan cultural y crear en la comarca en un centro de día para personas en situación de exclusión).</i></p>
<b>Auzoa</b>	<p>Aurreko legegintzaldian eta legegintzaldi honen hasieran egindako (edo hasitako) lanen inguruan azalpenak eman dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ion Oñatibia kaleko obrak egin dira. Taxi geltokia eta Xorrola geltokia lekualdatuz.</li><li>- Gazte topaleku berria martxan jarri da.</li><li>- Elizalde Herri Eskolako transpatioa egin da.</li><li>- Euskal Herria plazako ur filtrazioak konpondu dira.</li><li>- Euskal Herria plazako parkina bideo zaintza sistema baten bitartez kontrolatuko da (1,5 orduko mugarekin).</li><li>- Arrietako eguzki-plaken instalazioa egin da. Bertako argi-indarra erabiltzeko baimena eman behar dute.</li><li>- Landetxe eraikina egin eta plaza berritu da.</li></ul>



OIARTZUNGO  
UDALA

- Elorsoro kiroldegiko kardio eta gihartze gelak berritu dira.

*Se exponen los trabajos realizados (o iniciados) en la pasada legislatura y al inicio de esta legislatura:*

- *Se han realizado las obras de la calle Ion Oñatibia. Trasladando la parada de taxi y la de Xorrola.*
- *Se ha puesto en marcha un nuevo punto de encuentro juvenil.*
- *Se ha realizado el transpatio de Elizalde Herri Eskola .*
- *Se han reparado las filtraciones de agua de la Plaza Euskal Herria.*
- *El parking de la Plaza Euskal Herria se controlará mediante un sistema de video vigilancia (con un límite de 1,5 horas).*
- *Instalación de placas solares en Arrieta.*
- *Construcción del edificio Landetxe y renovación de la plaza.*
- *Reforma de las salas de cardio y musculación del Polideportivo Elorsoro.*

Elizalde auzoko eskaerak eta udalak hartutako konpromezuak:

- Liburutegia berrantolatzea.
- Udaleko harrera gunek bakarra ezartzea.
- Energia plana gauzatzea: kiroldegiko sektorizazioa, kotxe elektrikoak kargatzeko gailuak, bizikletentzako aparkalekuak...
- Fermiñenera ongizate saila lekualdatzea.
- Rafael Pikabea eta Tolaita guneen konponketak egitea.

Solicitudes y compromisos adquiridos por el Ayuntamiento en el barrio de Elizalde:

- Reorganización de la biblioteca.
- Establecimiento de un único punto de gestión del ayuntamiento.
- Ejecución del plan energético: sectorización del polideportivo, cargadores de coches eléctricos, aparcamientos para bicicletas...
- Traslado del departamento de bienestar a Fermiñene.
- Reparación de los espacios Rafael Pikabea y Tolaita.

Auzotarren ekarpenak edo zalantzak- Aportaciones o dudas de los vecinos:

- **Etxebizitza tasatuak zer diren galdetu dute.** *Preguntan qué son las viviendas tasadas.*
- **Urkabe baitako etxeen kokapenez galdetu da.** *Se pregunta sobre la ubicación de las viviendas de Urkabe.*



OIARTZUNGO  
UDALA

- **Euskal Herria plazako sarrerako kanaloia ataskatuta dagoela adierazi da eta ur asko erortzen omen da, putzu handiak sortuz.** Erantzuna: Udaletik adierazi da filtrazioekin arazo bat dagoela, belarguneak daudela eta junta horietara iristea ezinezkoa dela gaur egun. Kareak hoditeriarekin arazoak ematen ditu. *Se indica que el canalón de entrada a la Plaza Euskal Herria está atascado y desprende mucha agua, formando grandes pozas. Respuesta: Desde el Ayuntamiento se indica que hay un problema con las filtraciones: son zonas de césped y es muy difícil llegar a esas juntas. La cal crea también problemas en las tuberías.*
  
- **Kilikuperekin zer gertatuko den eta noiz arte itxita egongo den galdetu da.** Erantzuna: etxeko jabeak espazio kontuak aztertzen ari dira, bertan lanak egin ahal izateko. Proiektua egin eta bizilagunekin elkarrizketan ari dira, ea adostasun batera iristen diren. Luze joko du. Segurtasuna jokoan zegoenez, itxi egin da. Epe bat jarri da ea adostasunen puntua zertan den jarraitzeko, hiru hilabetetik behin elkartzen da udala. Ez bada adostasun batera iristen, aurretik onartutako proiektuarekin aurrera egin beharko dute. *Se pregunta qué pasará con Kilirikupe y hasta cuándo estará cerrado. La respuesta es que los dueños de la casa están analizando cuestiones de espacio para poder realizar trabajos en ella. Estan haciendo el proyecto y dialogando con los vecinos para ver si llegan a un acuerdo. Tardará mucho en llegar. La seguridad estaba en juego y se ha cerrado. El ayuntamiento se reúne con la constructora trimestralmente. En caso de no llegar a un acuerdo deberán continuar con el proyecto previamente aprobado.*
  
- **Apaiz etxearekin zerbait pentsatu izan den galdetu da, ea elizak hori uzteko interesik duen herriko eragileek erabil dezaten.** Erantzuna: bertan etxeak egiteko kontsulta egin zen duela urte batzuk. Azken aldian geldi dago. *Se pregunta si se ha pensado algo con la casa cural, si la iglesia tiene interés en dejarlo para que lo utilicen los agentes del*





OIARTZUNGO  
UDALA

*pueblo. La respuesta es que hace unos años se realizó una consulta para hacer casas. Últimamente está parado.*

- **Abiadurarekin arazoak daudela adierazi da, beheko plazatik plazarako bidean batez ere. Ostiral eta larunbatetan arrisku handia izaten da, udan bereziki. Eskolako jolastokian eta Madalensoron haur eta nerabe asko izaten da. Abiadura neurtzeko erabakiren bat hartzeko eskaera helarazi zaio udalari. Sentsibilizazioaren eta seinaleen bidez egin daiteke lanketa agian.** *Eskaera aztertuko duela jakinarazi du udalak. Se indica que hay problemas con la velocidad, sobre todo desde Beko plaza a la plaza. Los viernes y sábados hay un gran riesgo, especialmente en verano. En el patio del colegio y en Madalensoro hay muchos niños y adolescentes. Se ha remitido al Ayuntamiento una solicitud para tomar una decisión sobre la velocidad. El trabajo puede realizarse mediante sensibilización y señalización. El Ayuntamiento informa que estudiará la solicitud.*
  
- **Elizaldeko erdigunea oinezkoentzako soilik izan daitekeen aztertzeko proposamena egin dute. Hirubide tabernaren inguruan errepidearen noranzkoak aztertzeko proposamena ere egin da, plazarako igoera saihesteko. Merkataritza txikia kontuan izanez eta zainduz hartu beharko lirateke egoki ikusitako erabakiak, baita anbulategirako irisgarritasuna kontuan izanda ere.** *Eskaera aztertuko duela jakinarazi du udalak. Seinaleekin orain arte egindako saiakerak ez dira arrakastatsuak izan. Proponen analizar si el centro del barrio Elizalde puede ser exclusivamente peatonal. También se propone estudiar los sentidos de la carretera en las inmediaciones del bar Hirubide para evitar la subida a la plaza. Las decisiones que se consideren oportunas deberían tomarse teniendo en cuenta y vigilando el pequeño comercio, incluso la accesibilidad al ambulatorio. El Ayuntamiento informa que estudiará la solicitud. Los intentos realizados hasta el momento con señales no han sido exitosos.*



OIARTZUNGO  
UDALA

- **Ion Oñatibia Xorrola eta Taxibusarentzat soilik ixtean azpiko bidea hartu behar dute derrigor ibilgailuek. Ikusgarritasuna ez da ona.**  
*Gaia udaltzaingoarekin batera aztertuko duela esan du udalak. En el cierre exclusivo de Ion Oñatibia Xorrola y Taxibus, los vehículos deben coger obligatoriamente el camino inferior. La visibilidad no es buena. El Ayuntamiento dice que estudiará el tema con la policía municipal.*
  
- **Mugikortasunarekin loturik, Anerreko zubiaren ingurua bidegorri sarearen bidez lotzea proposatu da.** Erantzuna: udaletik bidegorri sarea zabaltzeko apustua egingo dela adierazi da Mugikortasunaren planaren baitan. Aurreko urtean proposatutakoa jasotzen zuen proiektua aurkeztu zen, baina ez da dirulaguntzarik jaso. Gure lan zerrendan jarrita dago hori eta beste hainbat bide lotzearena. *En relación con la movilidad, se propone la conexión del entorno del puente de Anerre con la red de bidegorris. La respuesta es que dentro del Plan de Movilidad se ha anunciado la apuesta por ampliar la red de bidegorris desde el Ayuntamiento. Se presentó el proyecto que recogía lo propuesto el año anterior pero no se ha recibido subvención. En nuestra lista de trabajo se encuentra la conexión con otras vías.*
  
- Bidegorrian bizikletekin arazoak. Abiadura handian ibiltzen dira, oinezkoak arriskuan jarritik. *Problemas con las bicicletas en el bidegorri. Circulan a gran velocidad poniendo en peligro a los peatones.*
  
- **Adineko jende asko dago herrian eta handituz joango da. Kolektibo horren autonomia sustatu nahi badugu, irizpide batzuk egokitu beharko lirateke adineko jendearen beharretara herri bideak egokitzeko. Gaur egungo herri bideek ez dituzte adinekoen beharrak kontuan hartzen: malda handiak, bide estuak, egokiak ez diren bideak... Bakardade ez hautatua dauden kasuetan ere lagun dezake honek.** Udalak erantzun du herri bideak mantentzeko jasotzen diren dirulaguntzak oso txikiak direla, (35000€-ra artekoak dira soilik) eta



OIARTZUNGO  
UDALA

hauek lehentasunen baitan eta biztanleria kopuruaren baitan lehenesten direla. Hau hala izanik, apurka apurka joango gara bideak txukuntzen.

*Hay mucha gente mayor en el pueblo y el número irá incrementando. Si queremos fomentar la autonomía de este colectivo, habría que adaptar unos criterios a las necesidades de las personas mayores para adecuar las vías públicas. Las vías públicas actuales no tienen en cuenta las necesidades de las personas mayores: pendientes pronunciadas, caminos estrechos, caminos inadecuados... Esto también puede ayudar en casos de soledad no elegida. El Ayuntamiento responde que las subvenciones que se reciben para el mantenimiento de los caminos públicos son muy bajas (sólo llegan a 35000 €) y que se priorizan en función de las prioridades y del número de habitantes. Así, poco a poco iremos ordenando los caminos.*

- **Gurutzera doan bidegorria argiztatu egin da. Jasagarria da?** Udalak adierazi du segurtasun aldetik egoki ikusten da dagoen argiztapena. Hala ere, berriz aztertzeko konpromisoa hartu du. *Se ha iluminado el bidegorri que va a gurutze. ¿Es sostenible? El Ayuntamiento señala que se considera adecuada la iluminación existente desde el punto de vista de seguridad. Sin embargo, se compromete a reconsiderarlo.*
  
- **Beste auzoetan ateratako ekarpena partekatu du udalak. Beste auzo batean Anbulategiko parkinaren erabilerak bertako bezeroentzat izan beharko lukela aipatu zen eta udalak gaia aztertzeko interesa agertu zuen. Elizalden merkatariengan pentsatu behar dela azpimarratu da.** *El Ayuntamiento ha compartido la aportación de otros barrios. En otro barrio se comentó que el uso del parking del Ambulatorio debería ser para sus clientes y el Ayuntamiento se interesó por el tema. Se destaca la necesidad de pensar en los comerciantes de Elizalde.*



OIARTZUNGO  
UDALA

- **Xanistebanak. Azken urteetan jaietan jende gehiago etorri da eta zabor eta zikinkeria asko sortu da. Zenbait lekutan garbitasuna hobetu daitekeela aipatu dute batzarrean, bereziki estalitako guneetan. Gune horiek detektatu eta garbitasuna hobetzea eskatu da. Elizalde Herri Eskolaren parean dauden etxeetako arkupeak itxi daitezkeen aztertzea eskatu da.** Udalean gaia aztertuko dela jakinarazi da. Goiko etxeetako arkupeak bizikidetzaz arazoak direla eta urte osoan itxi behar diren aztertzen ari da. *Xanistebanak. En los últimos años ha habido más gente en fiestas y ha habido mucha basura y suciedad. En la reunión se comenta que en algunos lugares se puede mejorar la limpieza en zonas especialmente cubiertas. Se ha solicitado la detección y mejora de la limpieza de estas zonas. Se solicita que se estudie la posibilidad de cerrar los soportales de las casas situadas frente a la Herri Eskola Elizalde. Se informa que en el Ayuntamiento se estudiará el tema. Se está estudiando la necesidad de cerrar los soportales de las casas altas por problemas de convivencia durante todo el año.*
  
- **Arazo psikikoak dituzten edo egoera zaurgarrian dauden herritarrentzako etxeak jaso omen ziren Altzibarren egin ziren etxeen proiektuan. Galdetu da ea proiektu berrietan jaso daitezkeen etxebizitzaren bat gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzat.** Erantzuna: ez dakigu ziur gaixotasun mentalak dituzte herritarrentzat legediaren arabera badagoen etxerik jasotzerik. Aztertu egingo da. *En el proyecto de casas que se realizaran en Altzibar se guardaron casas para ciudadanos y ciudadanas con problemas psíquicos o en situación vulnerable. Se pregunta si en los nuevos proyectos se puede incluir alguna vivienda para personas con enfermedades mentales. La respuesta es que no se sabe con certeza que para la población que padece enfermedades mentales es posible recibir un hogar conforme a la legislación. Se analizará.*



OIARTZUNGO  
UDALA

	<p>- <b>“Soinuen mapa” egin ote daitekeen galdetu da. Gaixotasun mentalak dituzten herritarrak zaintzeko bereziki.</b> Erantzuna: dagoeneko eginda dago. Udalera bertaratu eta interesa duenari erakutsiko zaiola adierazi da. <i>Se pregunta si se puede hacer un “mapa de sonidos”. Especialmente para el cuidado de personas con enfermedades mentales. Respuesta: Ya está hecha. Se indica que el Ayuntamiento se lo mostrará al interesado.</i></p>
--	--

#### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak Ponentes: Las explicaciones	8,73
Bilera ongi gidatu da Ponentes: Dirección o orientación de la reunion	9,07
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna Metodología	8,73
Auzotar kopurua Asistencia	4,71
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten) Participación	7,67
Saioa probetxugarria izan al da? ¿Ha sido provechoso?	8,40
Egunaren egokitasuna ¿Día apropiado?	8,93
Orduaren egokitasuna ¿Hora apropiada?	8,93
Lekuaren egokitasuna ¿Sitio adecuado?	9,20